



## **GUDA INPERIALISTAREN ETA IAIE-NATOREN AURKAKO HERRIEN AUZITEGI IRAUNKORRAREN BIGARREN EBAZPENA**

**GIIAHAIren Bigarren sesioa – Ekainaren 18 eta 19, Madrilen.**

### **Hitzaurrea**

GIIAHAIk bere bigarren ohiko sesioa ospatu du Madrilen, 2016ko ekainaren 18 eta 19an. “Guda eszenatokien” arabera lau mahai osatu dira, haietatik hiru geografikoak (Venezuela-Latinoamerika, Palestina-Ekialde Hurbila, eta Ukraina-Ekialdeko Europa) eta bat soziala (biktimak eta erresistentziak). Mahaien lanak lan taldeek aurretik sortutako materialak izan ditu eskura, auzitegiaren lehenengo eta bigarren sesioen artean aktibo mantendu direnak partaideen emendakinei esker. Mahai bakoitzaren lanaren emaitza lehenbiziko osoko bilkuran aurkeztu dira, eta eranskin bezala agertzen diren ebazpen espezifikoek sorrerari bidea eman diote. Halaber, osoko bilkuran “Inperialismo estatubatuarra eta Obamaren presentzia Espainian” inguruko txosten bat aurkeztu da, eranskin bezala agertzen dena baita ere, ebazpen berezi bati bidea emanez. Lehenbiziko osoko bilkuraren eztabaidatik abiatuz prestatu da eta eztabaidara eraman da GIIAHAIren Bigarren Ebazpen hau.

### **Zergatien azalpena**

Mota guztietako guden larriagotzearen eta gizateriarentzako ondorio lazgarriak izango dituen etorkizun belizista baten aurrean aurkitzen gara. Hau gertatzen den bitartean, guda gorakada honen erantzule diren potentzien biztanleria gertakari hauek kanpokotasunez dakusa, gertakari kronika bat bezala ikusten ditu beretzat sozialki zuzena ez den, ekologikoki harrapari, politikoki zitala eta gudaren bitartez erreproduzitzen den mundu batek izan ditzakeen ondorioak neurtu gabe.

Guda honen hari eroalea inperialismoa da: “Herrialde baten beste baten gaineko domeinuaren zabalpena indar politiko, ekonomiko edo militarren bitartez”. Historiaren beste momentu batzuetan, inperio ezberdinen arteko gatazka zegoen hegemonia lortzeko nahian; baina egun, hegemonia inperiala AEBk zuzendutako botere nukleo bakar bati dagokio, garatutako mendebaldeko blokeko herrialdeek babesa ematen diotenari eta azpiratzen zaienari.

Guda inperialistaren bizkar hezurra bere izaera estruktural eta sistemikoa da, hau da: guda hau sortzen duen sistemaren eta bere funtzionamendua erregulatzen duten dinamika eta harremanetatik banaezina den alde esentziala da. Horregatik, guda inperialista ez da aukera bat, kapitalismo bezala definitzen den antolaketa sozialaren, politikoaren, ekonomikoaren eta kulturalaren parte da.

Botere, ekonomi eta harreman metaketa beharrezkoa dauka sistemak bere biziraupenerako, horregatik metaketa hori inperioaren baitako zien kanpoko lurraldeetan ematen da. Horrek guda planeta osora zergatik hedatzen den azaltzen du. Bestalde, gabetze eta ustiaketa forma honek erresistentzia sortzen ditu, hauek azpiratzeko indarraren erabilera beharrezkoa delarik.

Egun mundua gobernatzen duen sistemaren biziraupenerako beharrezkoa da guda inperialista, hori delarik bere zabalpenaren, bere gaitasun belikoaren eta domeinu metodoen berritzearen arrazoia. Edozein motako elementuak erabiliko dira erabilgarritzat hartzen badira; bere helburuen lorpenaren aurka edo bidean jartzen den oro etsai bezala hartua eta tratatua izango da.

Guda inperialistaren izaera estruktural eta sistemiko hau ez zaigu ikusgarri egiten, ezkutuan jarraitu behar du; hortik eratorritzen dira kausa eta efektua aldarazten saiatzen diren guda mediatikoari eta

faltsutze zein manipulazio prozedurei eskaintzen dieten inbertsioa. Inperioak ez du inoiz erasotzen, beti norbere defentsan aritzen da mehatxu baten aurrean, ez du inoiz azpiratzen, beti askatasunaren, giza eskubideen eta demokraziaren izenean aritzen da. Fikzioa sortzeko ohiko prozesuak hiru fase ditu: kriminalizazioa, isolatzea eta suntsitzea. Lehenbizikoak etsaia sortzen du, bigarrenak ahuldu egiten du eta hirugarrenak suntsitu eta azpiratu egiten du.

Guda zabaltzen den era berean egiten du honen tresneriak: aurrekontu militarrek handitu egiten dira eta botere militarren zentroetatik etorkizunera begirako handitzeak eskatzen dira; aliantza militar handiak, IAIE-NATOk, gero eta herrialde gehiago barnebiltzen ditu eta modu iraunkorren gero eta lurralde gehiagotan ezartzen da, bere gaitasun belikoa eta izaera erasokorra handitzen ditu eta botere estatubatuarren menpe darrai. Zabaltze honekin batera dibertsifikazio eta espezializazio prozesu bat ematen da, guda mota ezberdinen konbinazioarekin batera, hala nola estrategia lokal, erregional eta kontinentalekin. Guda mediatikoak leku hartzen du eta prozesuaren bukaera arte parte hartzen du, guda ekonomikoak ekintza militar zuzen eta ez-zuzenekin bat egiten du, ejertzitoak erregularrak, beste herrialdeetakoak, mertzenarioak, konfesionalak... izan daitezke. Kanpo ekintzak barne ekintzekin konbinatzen dira estatu kolpeetan edo guda zibiletan bukatu daitezkeen gatazkak sortuz. Botere hartzearen forma berriak sartu dira guda inperialistaren baitan: kolorezko iraultzak izendatu direnak, Arabiar Udaberriak, parlamentu kolpeak (Paraguayn eta Brasilen gertatutakoak kasu), etc.

Guda inperialistaren saldoak dominazio guda baten nolakotasunak ditu. Alde batetik biktimak, herri osoei lurrak, ondasunak, kultura, gorputz atalak, bizitza kendu zaielarik. Biktimak, gehienak zibilak eta ahulenak, emakume eta haurrak... Bestalde, gero eta indartsuagoa den inperio bat, dominazio ahalmen gero eta handiagoarekin, gero eta aberatsagoak diren korporazioak, dominazio gaitasun handiagoarekin, industria militarren konplexua, konkistatutako lurraldeen ustiaketa, berreraikitzearen negozioa, biktimen gain-ustiaketa...

Nahiz eta egoera hau izan, pertsona, talde, antolakunde eta herri osoak ez dute amore ematen eta logika inperialistari aurre egiten diote.

Guda Inperialistaren eta IAIE-NATOren Aurkako Herrien Auzitegi Iraunkorra beharrezkoa den erresistentzia ekite horri lotzeko nahiarekin jaio zen, hainbeste basakeriaren aurkako oposizio erradikalari oinarri emango dion guda inperialistaren erantzuleen salatze eta gaitzespen morala eta politikoa emanez.

Gure nahia da dinamika inperialista beti domeinuaren aurka agertzen diren guztien aurkako guda ezartzea dela, eta guda honek estrategia ezberdinak hartzen dituela eszenatoki konkretuaren arabera, guztietan elementu komunak erreproduzitzen.

## **Mahaiek egindako lanaren sintesia eta osoko bilkuran azaldutakoa**

**Venezuela eta Latinoamerikaren inguruko mahaia** Venezuelako kasuaren analisisian zentratu da. Arreta jarri da Estatu Batuek jokatzen duten paperean, NED eta USAIDen bidez, eta Caracaseko enbaxada beretik, oposaketa kolpista eta antidemokratikoari babesa emanez; Europar Batasunaren (batez ere Espainiaren) eta Colombiaren inplikazioa ere aipatu da desorekatze, kriminalizazio eta baztertze kanpaina horretan (nahiz eta zuzeneko interbentzioak eta erasoak eman diren) eta zeinek estatu kolpe bat prestatze bide duen. Mahai honek guda mediatikoari jarri dio arreta ere, non ikusten den albiste faltsu eta distortsionatuen hedapen jarraikorra ematen den. Guda ekonomikoari dagokionean, espekulazioa eta metaketa Venezuelako burgesiak erabiltzen dituen armak direla ikusi da, klase bortizkeria honen bidez eraginez. Bestalde, lobby sionistak erregioan inperialismoaren lagun bezala duen papera ere aipatu da.

**Palestinaren eta Ekialde Hurbilaren inguruko mahaiak** azaldu du Palestinako kasua ekialde hurbilean inperialismoak daraman jardunaren kasurik esanguratsuen dela, erregioko bere hedapen proiektuaren bizkar hezurra baita. Eman ez zen deskolonizazio prozesu baten ezaugarriak aurkitzen ditugu Palestinan, giza eskubideen zapaltze sistematikoarekin, gizateriaren aurkako krimenekin, eta garbiketa etnikora bideratutako min ekologikoarekin. Aldi berean, palestinar herriaren erresistentzia inperialismoaren orden berriaren aurkako konfrontazioaren adibide da. Mahaiaren lana kasu palestinarren hiru aspektutan zentratu da. Lehenbizikoa, itzulerarako eskubidea da, mahaiak bildu duelarik entitate sionistaren ekintzek ez dutela Palestinako herria bere lurretara itzultzeko eskubidea errespetatzen, eta nazioarteko erakundeek ez dutela defendatzen ere ez. Bigarren aspektua Palestinako erresistentziaren kriminalizazioa da, eta kasu honetan mahaiak Palestinak Israelen okupazio kolonialari aurre egiteko eskubidea duela ebatzi du, horretarako eskura dituen bitarteko guztiak erabiliz, eta kontuan hartu du defentsarako eskubide hori ez dela “nazioarteko komunitateak” babestua, konplize den isiltasuna gordetzen duelarik. Hirugarren aspektua israeldar orden politikoa apartheid erregimen bezala karakterizatzea izan da; Israelen bere burua “Ekialde Hurbileko demokrazia bakar” bezala aurkezten du, ezin dezakeelarik EBk entitate sionistari eskaini dizkion kooperazio politika kultural eta akademikoekin zein kide preferente estatusarekin bat egin. Laugarren elementua kausa Palestinarrekin elkartzun kanpainak dira, boikot ekintzak, desinbertsioa eta santzioak, azken urteetan leku handia irabazi dutenak eta lobby sionistaren kontraeraso bati aurre egiten diotenak, oinarritzko eskubideak urratzen dituen kanpaina xenofobo bezala aurkezten saiatzen direlarik; antisemitismo akusazioa erabiltzen da sistematikoki (judeofobiaren sinonimo faltsua) denuntzia anti-sionistak deskalifikatzeko forma bezala. Bosgarren aspektua guda mediatikoa da, herri palestinarren benetako egoera distortsionatu eta okupazio israeldararen konplize bilakatu nahi gaituenak.

**Biktima eta erresistentzien inguruko mahaiak** oinarri hartu du inperialismoa besteren kaleratzean oinarritzen dela, dominazio harremanak ezarriz, borondatea eta subiranotasuna azpiratuz, blokeoak, estatu kolpeak eta gudak erabiliz, eta beraz, biktimen irudia hartzen duten suntsipen eta min arrasto bat uzten duela. Laguntza humanitarioa eskatzen duen begirada aktibo baten beharra dagoela ezarri du, baina biktimak ikusgarri egitearen eginbehar politikoa ere bai, haien ahotsa entzun, haien egoera sortu duten estrategia eta interesak salatu eta gabezian uzten dituen inperialismoaren logikari aurre egitea. Herri, erregio eta kontinente osoak ikusi dituzte haien bizi baldintza drastikoki aldatuak interes urri batzuen eraginez; biktimen ikuspuntutik interes hauek hari eroale batek berak konektatzen ditu: milioika pertsonen masa gabetzea dekretatzea, sektore ahulenak gehiago kolpatzen dituen gabetze bat (errekurtso ekonomiko urriko pertsonak, haurrak, emakumeak, zaharrak...). Mahai honek azpimarratu du egun 70 milioi pertsona indarrez desplazatuak izan direla gudaren eraginez; 2015ean 46 herrialde zeudela gatazkan eta 2700 milioi pertsona guda arriskuaren pean; edo Afganistaneko, Irakeko eta Pakistaneko guda inperialistek lau milioi hildako baino gehiago utzi dituztela. Baina, egoera honetan, biktimen opresio dinamika hauei aurre egiten dietela jaso dute ere. Mahai honek azken gudek sortu dituzten biktima kopurua, sektore ahulenak biktimizatuenak izateak suposatzen duen gizagabetzea, eta biktimei ezarritako gabetze dinamika inperialista salatu du. Ildo beretik, mahai honek ebatzi du “terrorearen aurkako guda globala” bezala izendatutakoak biktima errugabeen kopurua 32 aldiz handitzea ekarri duela. Bestalde, mahaiak iraganaren berrirakurketa eginez inperialismoaren aurkako biktimen eta herrien erresistentzia dinamika babestu ditu, elkarbizitzarako proiektu kolektibo bat sortuz, haien borroka dinamika internazionalistara gehituz, auto-antolaketa eta partaidetza prozesuak indartuz eta subiranotasunerako eskubidea errebindikatuz.

**Ukraina eta Ekialdeko Europaren Inguruko mahaiak** ebatzi du Ukrainako krisia AEBk elikatua eta EBk babestua izan dela Siria suntsitzeko estrategiaren aurrean Errusia albo batera ez egiteagatik eta azken honen saiakeragatik EBrekin batasun ekonomiko ezartzeko nahiagatik. Ekintza kriminalen artean talde paramilitarren finantziaketa, armatze eta entrenamendua daukagu. Krisi politikoa bitartekari egin ordez, mendebaldeko gobernuak estatu kolpea onetsi zuten. Gobernu probisionalak gutxiengo etnikoen eta estatu kolpearen aurka zeudenen aurkako errepresio genozida

abiatu zuen. Ondorioz, autodefentsak eratu ziren Krimean eta Dobassen. Kieveko gobernu berriak talde banderisten (nazien) onespren bila ekin du beti, zeinek hainbat motako krimenen egile izan direnak; haietatik Odessako eta Mariupoleko sarraskiak. Donbasseko gudak 9000 bizitza eramanez dituzte berekin jadanik. Ukrainako krisiak mendebaldeak erabilia izan da Erusiaren aurkako zigorrak ezartzeko, gatazkaren erantzule omen baita. Errusiaren aurkako tentsio estrategia AEBen borondateari men egiten dio, arma nuklearren alderdian duen etsai bakarra. Mahaiak barne hartzen du mendebaldeko gobernuen historia berridazteko nahia, sobietar armadak nazien aurka izan zuen paper berebizikoa estali nahian. Mahaiak Espainia salatzen du AEBren politiken jarraitzaile bezala eta Errusia jazartzeko errekurtsioen emale bezala, zeinen aurka ez duen ezer Espainiako biztanleriak.

## **“Inperialismo estatubatuarraren eta Obamaren presentzia Espainian” inguruko GIINAHAIren ebazpen berezia**

Guda Inperialistaren eta IAIE-NATOn Aurkako Herrien Auzitegi Iraunkorrek, 2016ko ekainaren 19an Madrilen bildua, arretan hartu du Auzitegiaren kideek osatutako “Inperialismo estatubatuarraren eta Obamaren presentzia Espainian” informea hurrengo ebazpen berezia osatzeko asmoz, informe horren edukiaren arabera sortua:

AEB bere historian zehar potentzia inperiala izan da, hau da, beste nazio batzuei gailendu zaie indar militar, politiko eta ekonomikoaren bidez. AEBk esku hartze, desorekatze eta eraso militarreko 200 ekintza baino gehiagotan parte hartu du. Bere inperioa hegemonia militarra oinarri eraikitzen du; 700 eta 100 base militar inguru dauzka, bost kontinenteetako 100 herrialdeetan hedaturik; munduko edozein lekutan masiboki esku hartzeko ahalmena dauka eta bere aurrekontu militarra mundu osoko %41a da. Gainera, IAIE-NATOn mando gorena dauka, horrek ematen diolarik 28 herrialderen gaineko mando militarra, zeinen artean munduko garatuenak aurkitzen diren.

Politika inperialista estatubatuarra guztiz pragmatikoa da. Berak ezartzen dituen oinarriak hausten dituzten aktore eta Estatuekin harremana hartzen ditu (Israel- AEBn domeinuaren oinarriko zati-Arabia Saudi, indar paramilitarrak, talde faxistak, etc.), eta era berean, oinarri horiek onartu eta aplikatzen dituztenak kriminalizatu eta jazartzen ditu, Errusiako kasua adibidez; hori guztia bere interesak babestearren.

Marko orokor honetan, Barack Obamak AEBetako presidentzia hartzen du 2009ko Urtarrilean; karguak ejertzitzaileen eta IAIE-NATOn komandante buruaren komandantzia inplikatzeko du. Bere talde presidentzialean ezagunak diren pertsona belizistak ditu eta “AEBn lekua munduan berritzeko esfortzu” baten beharra azaleratzen du. Hala ere, urte horretako Urriaren 10ean Nobel Sariak ematen zaio intentzio azalerrak huts batengatik, bere mandatu lehenbiziko hilabeteetan Guantanamo kartzela kentzeko eta herrialde arabiarretara hurbiltzeko asmoa aurkeztu baitzuen.

Ordea, Obamaren bi mandatuak berrarmatze eta esku hartze gorakorreko prozesu bat izan dira. IAIE-NATOn gaitasun belikoa handitu da, bere lurralde zabalpena eta aurrekontuak; dronen bitarteko lege kanpoko ekintzak eman dira, guztiak Obamak sinatuak, borrokariak ez diren biktimen kopurua handituz; esku hartzeak, guda ekonomiko eta mediatikoa, Estatu kolpeak eta gatazka guneetan ezarritako ejertzitzaileen erabilera handitu dira; erregio estrategiak gauzatu dira lurralde zabalen domeinua lortzeko, eta edozein erresistentziari aurre egiteko jazarpen estrategiak ezarri dira.

Honek disuasio logikaren baztertzea eta gorakada armamentistikoa aktibatzea dakar. Gorakortasun horren efektibotasuna, bestalde, hainbat espezialistek dudatan jarria izan da, horrek dakartzan arriskuak direla eta; askatasunen mozketak, eskubide demokratikoak kentzea, gizartearen osotasunari eremu militarren gardentasun gabezia eta arbitrariotasuna hedatuz, milioika dolar sistema honetan inbertituz. Hori guztiagatik, esan daiteke Barack Obamaren presidentzia, bere aurrekariak bezala,

guda izaera markatua izan duela, inperio estatubatuarraren interesei men eginez eta giza sufrimenduaren eta planetaren bizitzaren arriskua gora eginez.

Momentu honetan, Espainiako posizio geoestrategikoa eta bere AEB-IAIE harreman bikoitzak estrategia inperialistarako berebizikoa den lurralde egiten du. Hori ikusgarri egiten da herrialdean egon den AEB-IAIEren gorakada militarra ikusita, zehazki Torrejón (CAOC), Rota (misilen aurkako ezkutua), Morón (interbentzio azkarreko indarrak eta AFRICOM) eta Bétera (eskuragarritasun altuko indarrak<sup>9</sup>: Halaber, beharrezkoa da aipatzea 2015eko Urrian eta Azaroan Trident Juncture maniobrak gauzatu zirela, egun arte esanguratsuenak izan direnak, espainiar estatua ekintza militar horrek gehien hartu zuen lurraldea izanik.

Egitura guzti horrek ez dio inolako nazio interes men egiten, inperio estatubatuarraren interesei men egitea baizik. Gure egoera dependentzia eta azpiraketa da, segurtasuna eta subiranotasuna inolako erresistentziarik gabe emanak izaten ari dira. Pasibotasun honek inperialismoak lurreko beste leku batzuetan aurkitzen duen erresistentziarekin kontrastatzen du; halere, komunikazio bitartekoek eta gure politikoen jarrerak hauen garrantzia gutxitzeaz arduratu dira, eta beraz inperialismoaren eta erresistentzia fenomenoen ondorioak ezkutatzeko, biztanleriaren onarpen pasiboa lortzeko.

GIIAHAIk beste antolakunde kolektibo eta pertsonak ebazpena babestu eta zabaltzera deitzen ditu eta AEBn diktatuen aurkako deitu daitezkeen protestei batzea. Halaber, aipatutako Gobernu eta Autoritateei, eta aparatu errepresiboen erabilera egiteko tentazioa dutenei, oinarritzko eskubide eta askatasunak, batez ere adierazpen askatasuna, eta batzeko eta elkartzeko eskubideak errespetatzeko eta babesteko beharra daukatela.

## **Ondorioak**

Guda Inperialistaren eta IAIE-NATOn Aurkako Herrien Auzitegi Iraunkorrak, 2016ko Ekainaren 18 eta 19an Madrilan bilduak,

### **GAITZESTEN DU**

1. Egungo eraso inperialisten baitakoak diren desorekatze politikorako maniobrak, eta batez ere talde kolpista, atzerakoi edo faxisten finantziaziotik igarotzen direnak. Maniobra mota hauek Venezuelan, Ukrainan zein Ekialde Hurbilean aurkitu daitezke.
2. Potentzia inperialisten hipokresia politikoa, zeintzuk nazioarteko eskubidearen aurkakoak diren erregimen eta aktoreekin aliantza irmoak dituzten. Entitate sionistarekin dagoen konplizitatea kasu esanguratsua da, baina ez da bakarra.
3. Inperialismoari modu zilegian aurre egiten diotenen kriminalizazio, jazarpen eta kartzelaratzeari, hala nola hauen historia eta memoria aldarazteko, gaitzesteko eta ezkutatzeko saiakerak.
4. Korporazio eta oligopolio transnazionalen praktikak, eskuhartzeak aberaste helburuekin bultzatzen dituztelarik (delarik gatazkak sortuz edo nazioarteko hitzarmenak bultzatuz).
5. Mendebaldeko gobernuen borondatea, eta batez ere AEBrena, hirugarren herrialdeen garapen politiko askean esku hartzean, estatu kolpeak bultzatuz edo onartuz, eta ostean zilegi ez diren gobernuak babestuz.
6. Eraso inperialisten biktimak egoera horretara eraman duten kausa politikoetatik kanpo dauden giza emergentziek eragindako subjektu bezala aurkezten dituzten dinamikak. Dinamika hauek

biktimek jaso duten egoera kritikoa gainditzea galarazten dute, eta eskema berdinen errepikapena ahalbidetzen dute gerora

7. Barack Obamak egindako lan doilorra, esku hartze eta guda garapenera bideratua, arriskuan dagoen mundu bat eta milaka biktima sortuz.

8. Espainiar autoritateen kooperazioa inperialismo estatubatuarrarekin, Espainiaren militarizazioa eta honen guztizko integrazioa ekarriz Estatu Batuek Europako Hegoaldean eta Mediterraneoan daramaten zabalpen militarrean.

9. Domeinu inperialistaren tresna bezala sionismoak daukan paper espezifikoa, Ekialde hurbilean zein munduko beste leku askotan, eta bere infiltrazioa nazioarteko organismoetan, sionismoak berak gaitzesten dituen giza eskubideak babesten dituztenetan barne.

#### BABESTU ETA BULTZATZEN DU

Inperialismoari aurre egiten dioten guztien borroka, eta erresistentzia esperientzia horiek, ezagutu, zabaldu eta babestu nahi duten guztien esfortzua.

#### ONDORIOZTATZEN DU

Guda Inperialistaren eta IAIE-NATOren Aurkako Auzitegi Iraunkorrak antolakunde sozial eta politikoak deitzen ditu ebazpen honen edukia berretsi dezaten eta domeinu inperialista gelditu eta aldarazteko helburuarekin mugiarazi daitezen.